



## **Gipuzkoako Bazkondeak Angolara joateko Misio komertziala antolatu du**

➤ *Misio komertziala urriaren 14tik 17ra egingo da.*

➤ *9 euskal enpresek parte hartuko dute.*

**Donostia, 2013ko urriak 11.** Angolako misio komertziala **Gipuzkoako Bazkondeak** antolatzen du. Euskadiko Merkataritza Ganberen-Eusko Ganberak-en jarduera bat da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lagundutakoa.

Misioa urriaren 14a eta 17a bitartean burutuko da eta 9 enpresa bizkaitarrek, arabarrek eta gipuzkoarrek parte hartuko dute. Sektoreei dagokionez, era askotakoak dira, zerbitzutakoak, eraikuntzako materialetakoak, energia eta kontsumo iraunkorreko ondasunetakoak...

Misio honen helburu orokorra, euskal enpresek etorkizunean harreman komertzialak eduki ahal izateko aukeren garapena ikertzea eta aztertzea da. Dibertsifikazioa bilatzen ari diren enpresentzat bati bat, horrela bertako enpresariekin kontaktu zuzena izateko aukera izango dute.

Euskal enpresen ordezkariak osatzen duten bederatzi enpresak helburu honekin abiatu dira Angolara. Herrialde honek merkatu mailan hazkunde adierazgarri bat izateko aukera zabalak ditu, nahiz eta oraindik merkatu ezezagun bat izan. Joan den urtean esaterako, 57. postuan zegoen Euskadiko esportazioei dagokionez.

### **Angola**

Angola, Afrikako ekonomian hazkunde handienetakoa duen herrialdea da. Etengabe hazten ari den petroleoaren sektoreak laguntzen du honetan, egunean 1,65 miloi kupel produzitzen dituzte eta urte batzutan bi miloi baino gehiago produzitzeko asmoa dute. Erlatiboki kanpoko sektoreei irekita dagoen herrialdea da, kontsumitzen duen gehiengoa kanpoan erosten duelako, oraindik guda ondorengo ekonomia bat da, oso industria gutxirekin eta defizita sortzen duen nekazaritza batekin.

Hala ere, Angola eraldatzen ari da. Guda ondorengo ekonomia bat izatetik merkatuko ekonomia bat izatera pasatzen ari da eta hau aparteko baliabide naturalak dituelako gertatzen ari da, hala nola, petroleoa, gas naturala, diamanteak, mineralak, baliabide



hidraulikoak, nekazaritza eta arrantza. Nahiz eta hauen aprobetxamendua ez hain egokia izan, petroleoa kontutan hartu gabe.

Angolako politika ekonomikoak petroaleoaren industria mantendu eta garatu nahi du urazpiko ustiapen berriekin, eta bide batez dibertsifikazio ekonomikoa bultzatzeko asmoa du. Berriki Angolako gobernuak Angolako mapa geologiko bat sortzeko lehiaketa antoaltu du beste mineral batzuk sustiatzeko helburuarekin.

Une honetan Angolako ekonomiaren sektore banaketa honako hau da:

<b>Petroleoa, gasa, diamanteak ...</b>	BPG %48,4 (gasak eta petroleoak %47,3a suposatzen dutelarik).
<b>Nekazaritza eta Arrantza</b>	BPG % 11
<b>Manufakturak</b>	BPG % 6,5
<b>Eraikuntza</b>	BPG %6,2
<b>Energia Elektrikoa</b>	BPG % 0,1
<b>Zerbitzuak</b>	BPG % 20,3
<b>Beste batzuk</b>	BPG % 7,4

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347